

NERABEZAROAREN KULTURA ETA PARTE HARTZEA



- **Herri Hezitzailea lantaldea:**

Irrien lagunak kluba, Plisti Plasta, Hik Hasi pedagogia-ekimena, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Topagunea, Zirimola: Ikastolen elkarteko Aisiola aisialdiko taldea, Artaziak Koop, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkarte, Bizkaiko Urtxintxa eskola, Arremanitz, Elgoibarko Izarra, Ttakun Kultur Elkarte, Hiruki Larroxa, Urtxintxa Gipuzkoa, Kokoriko Aiaraldeako ekintzen faktoria.

- **Koaderno honen egileak:**

Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko elkarte

- **Laguntzaileak:**

Leire San Vicente eta Sara Mchichou

- **Maketazioa eta ilustrazioak:**

Eñaut Aiertzaguena Bravo

- **Argazkiak:**

Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkarte eta Kimuak Aisialdi Elkarte

- **Imprenta:**

Gertu inprimategia

- **Babeslea:**



- **Bildumaren ISBN:**

978-84-606-672-6

- **Ale honen ISBN:**

978-84-09-38629-1



Zazpi kontzeptutan oinarritzen da hemen proposatzen dugun aisia-eredua. Zazpi eremu horiek elkarrekin ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halaberrez elkarrekin joan behar dutela uste dugu.

Horrela formulatu ditugu gure lan-eremua eta xedea:

- Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen **haurren kultura aitortzea**;
- Hori oinarri hartuta, haurrei **benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena** ematea;
- Eurek eraikitako **aisia hezitzaile** eta **euskaldunaren** bitartez, **aniztasunean berdin eta parekide izanez** eta **ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana** indartzea
- Pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta ase-garriak jostea.

NERABEZAROAREN KULTURA ETA PARTE HARTZEA

Esku artean duzun liburuxka hau eraikuntza kolektibo bat izan da. Oinherri, herri hezitzaileak sustatzeko elkarte osatzen dugun elkarte/eragile ezberdinek elkarrekin eta elkarrengandik ikasiz sortu duguna.

Urteak daramatzagu Euskal Herri luze zabalean nerabeen aisialdi hezitzaile eta parte hartzailea sustatzen. Esperientzia horietako bakoitzean bizitakoak eta, 2021eko udazkenean Aiaraldeako Ekintzen Faktorian “Noiz eta zergatik parte hartzen dute nerabeek?” jardunalditik ateratako ondorio nagusiak bildu ditugu liburuxka honetan.

Nerabeekin parte hartzea lantzerakoan, metodologiak garrantzitsuak izanagatik ere, markoa adostea ezinbestekoa delako. Liburuxka hau, marko hori adosteko saiakera bat da. Nerabezaroa subjeto aktibo moduan, eta parte hartzea eskubide gisa ulertu, eta nerabeekin parte hartzea lantzerakoan, helduok nondik aritu nahi dugun hausnartzeko gonbidapen bat.

AURKIBIDEA

- 0. SARRERA	6
- 1. NERABEZAROAREN KULTURA	8
1. 1. Zer da Nerabezaroa?	8
1. 2. Nerabezaroaren ezaugarri nagusiak	11
1. 3. Nerabezaroaren inguruko ikuspegi berri baten beharra	12
- 2. NERABEAK ETA PARTE HARTZEA	16
2.1. Parte hartzearen kontzeptua birpentsatzea	17
2.2. Errezeta magikoa badago: gu geu gara osagai nagusia	20
2.3. Nerabeen parte hartzea: “nahi, jakin eta ahal”	22
2.4. Parte hartzaileak garatzeko oinarri metodologikoa	26
2.4.1. Prozesu parte hartzaileen eskema metodologikoa	26
2.4.2. Parte hartze prozesuen oinarrizko zortzi alorrak	29
2.4.3. Helduon rol-a	34
- 3. BALIZKO PROZESU BAT	36
- 4. NERABE MIGRATUEKIN PARTE HARTZEA LANTZEN Sara Mchichou Darkum elkarteko kideari elkarrizketa	44


O. SARRERA



Nerabeek jendarte honetako herritar talde konplexu, anitz, ezezagun eta aldakorrenetako bat osatzen dute. Hautzaroa atzean utzita oraindik heldu gisa hartzen ez ditugun honetan, **sarri gertatzen zaigu helduoi nerabezaroa ezagutu eta ulertzeko zailtasunak izatea. Eta jakin badakigu ezagutzen ez dena ezin dela zaindu.**

Oinherritik sustatzen ari garen Herri Hezitzaileen Sareko udalerrietan behin eta berriz errepikatzen den kezka da nerabeen artean parte-hartzea sustatzeko ezintasuna, edota bide horri ekiteko modu egokien ezjakintasuna.

COVID-19aren pandemiak areagotu egin du kezka hori. Nerabeen inguruan bizikidetzaren arazoak edo kexak sortzea ohikoa bihurtzen ari da; nerabeek gauzak puskatzen dituztela, inguruak zikintzen dituztela edo zarata ateratzen dutela eta antzekoak egunero entzuten ditugu komunikabideetan eta baita gure herrietako kaleetan ere. Nerabeekin harremanetan dauden eta haiekin batera proiektuak kudeatzen dituzten hezitzaile, elkarte eta instituzioak egoera konplexu baten aurrean daude, bi suren artean baleude bezala. COVID-19aren pandemiaren kudeaketarako ezarritako neurriek su horiek haus-



potu dituzte. Ekologistek sarri esan ohi duten moduan, suteak ekiditeko, suhiltzaileen lana bezain garrantzitsua izan ohi da aurrez basozainek egindako lana. **Nerabeen gaian ere, suhiltzaile eta basozain lanak, biak ala biak, uz-tartzea behar-beharrezkoa dela uste dugu Oinherriin.**

Liburuxka hau behar horiei erantzuteko saiakera bat da. Bertan bildu ditugu Aiaraldeko Ekintzen Faktorian burutu genuen “Nerabeek noiz eta zergatik parte hartzen dute?” jardunalditik ateratako ondorio nagusiak. Liburuxka honen helburu nagusia hau da: nerabe-

zaroa subjektu moduan eraikitzea; eta nerabeekin parte-hartzea nola, nondik eta zertarako landu dezakegun hausnartzea eta eta gako batzuk biltzea. Nerabezaroa subjektu bezala ezaugarritzea eta “Nerabezaroaren kulturaren” sakontzea ezinbestekoa ikusten baitugu, nerabeekin benetako parte-hartzea lantzen hasteko.


Gizarte helduzentrista honetako joko arauetara egokitu daitezten saiatu beharrean, uste dugu gure egiteko nagusia dela, heldu eta nerabeak elkar aitortu, eta bien arteko elkarrizketa sustatzeko baldintzak sortzea.

Kontuan izanik arauak beti kanpotik ezartzen zaizkiela, eta haien iritzia aurretik gutxitan galdetu zaiela; ez da erraza izaten nerabeak parte-hartze dinamiketara gerturatzea. Hori oinarri izanik, nerabeengana hurbiltzeko eta beraien konfiantza irabazteko jokabideen inguruan hausnartzera eta bizikidetzara arauak berraztertzerara gonbidatu nahi zaituztegu. Kontua ez baita nerabeak helduen munduan helduen arauekin bizitzera behartzea, komunitateko kideek elkar ezagutu eta ulertuta, elkarbizikidetzarako arauak adostea baizik. Nola begiratzen diogu nerabea den, ohitura berriak dakartzan eta ezberdina den horri? **Helduoi, homogeneousatu eta epaitu beharrean, aniztasun horri guztiari lekua egiten ikastea dagokigu; nerabeengandik eta nerabeekin ikastea, alegia.**

I. NERABEZAROAREN KULTURA



ENNA



Nerabezaroa, eraikuntza sozial moduan nahiko berria, ezezaguna eta aldi berean askotarikoa denez; ahalegin berezia egin behar dugu helduok, gure herriko nerabeak ezagutzeko, haien ibilbide pertsonalera, zaletasunetara eta interesetara gerturatzeko. Azken finean, haien beharrak hobeto ulertuz, errazagoa izango baita haiekin empatia izatea. Horretarako, beharrezkoa da nerabezaroa ikuspegi eraikitzailetik ulertzea, eta etapa horretan dagoen aniztasuna aintzat hartzea; nerabea, eskubide eta betebeharrak dituen herritar oso gisa aitortzeko.

1. 1. ZER DA NERABEZAROA?

Ezer baino lehen, argi izan behar dugu nerabezaroa eraikuntza soziala ere badela; beraz, garatzeko ezinbestekoak ditugun oinarrizko beharrianak aseta ez izateak, garapena oztopatzen du; eta horrek eragina du nortasun positibo baten eraikuntzan, harremanetan, jendartean mugitzeko logikan, etab. Oinherrin, nerabezaroa, haurtzarora eta helduaroaren artean kokatzen den eta zaindu behar den berriazko bizi-etapa modura ulertzen dugu.

Nerabezaroen, izaeraren eremu psiko-sozialean momentu garrantzitsua gertatzen da: aurrera pauso esanguratsua berezko nortasunaren eraikuntzan. **Identitatea eraikitzeke garaia da; mundua eta norbere burua deskubritzen jarraitzeke garaia da.** Identitatearen eraikuntza honetarako ezinbestekoa da besteen presentzia, hain zuzen ere, nerabea zerbait bada izaki soziala delako, eta bere nitasun hori besteekin duen elkarrekintzaren bidez eraikitzen duelako. Haurtzaroko heldu erreferenteekeko independentzia eta lagunekiko lotura sortzen den garai bezala ere definitu genezake.

“garatzeko ezinbestekoak ditugun oinarrizko beharrianak asetuta ez izateak, garapena oztopatzen du”

Orokorrean, nerabezaroak ez du inoiz irudi on bat izan eta ez zaio balio propio-rik eman. Egunerokotasunera joanda, nagusiki gatazka egoeretan gogoratzen gara nerabeez, eta gehienetan egingdakoa zigortzeko izan ohi da. Gatazka-rik ez dagoenean, aldiz, sarritan ahaztu-ta geratzen den kolektiboa izan ohi da.

Jendarteak, oro har, nerabeak haur handi edo forma hartzen ari diren hel-du bezala ikusi izan ditu. Haurtzarotik helduarorako trantsizioan dauden per-sonak. Oinherri trantsizioaren ideiatik transmisioaren ideiarda pasatzea propo-satzen dugu, hau da: nerabezaroa jen-darteak pertsonari praktika, sinesmen

eta balio sistema oso bat transmititzen dion garaia dela onartu, eta aldi berean nerabeak jasotako hori, zalantzan jarri, ukatu edo bereganatzen duen momentu bezala.

Hala ere, nerabezaroa transmisio garaia dela aldarrikatzen dugunean, ez gara transmisioaren ideia tradizionalaz hitz egiten ari... **Margaret Mead** antropolo-go estatubatuarrak dioen bezala, trans-misio tradizionala eraginkorra zen aito-na-amonen iragana haurren etorkizuna zenean. Gaur egun, gurasoen iragana ere ezin denean nerabeen etorkizuna izan, transmisioa, bi noranzkoko dela ulertzen dugu, zirkularra eta soziala.



2. NERABEZAROAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

“Ez da nerabezaro bakar bat existitzen, nerabeak baizik. Nerabe bakoitzak erakutsiko digu, beraz, zer den nerabezaroa.”

Nerabezaroa bizitzeko modu asko dago: zenbat nerabe, hainbeste modu. Ezaugarri komun bakarra dute: adina. Eta adin horri dagozkion oinarri-zko behar batzuk partekatzen dituzte. Pluraltasun hori fase kronologiko hau bere aniztasun osoan ulertzeko modu bat da; nerabeak egoera ezberdinetan bizi direlako eta askotariko beharrak dituztelako. Ondorioz, nerabezaroaz hitz egitea baino egokiagoa litzateke nerabeez hitz egitea, nerabe bakoitza bakarra eta errepikaezina delako.

Bizi-etapa hau ulertzeko garrantzitsua iruditzen zaigu kontuan hartzea nerabearen interes nagusiak Ni fisikoan eta Ni emozionalean kokatzen direla; baita berdinkideen taldea haren erreferente nagusi bihurtzen dela ere (inguruan gertatzen denaren eta jendarte gertae-ren interpretazioan).

“Dena horren azkar aldatzen doan eta etorkizuna hain ziurgabea den garaiotan, gure jendartea birplanteatzeko gakoak lor ditzakegu nerabeengandik”

Bizitzako etapa honetan dituen ezinegonak asetzera bideratuko ditu nerabeak bere indar eta gaitasun guztiak:

- Identitatea eta rol pertsonalak ikertzera
- Autonomia areagotzera
- Berdinen arteko erlazioak esperimentatzera
- Sexualitatea deskubritzera
- Gai, garrantzitsu eta trebe sentitzeko modua ikertzera
- ...

Beraien egiteko horretan, ordura arteko jendarte-kodeen eta -balioen berrikuspun bat egiteko aukera emango digute nerabeek. Helduon mundutik transmititu nahi diegun hori guztia zalantzan jartzeko ariketa ederra egingo digute, entzuteko prest baldin bagaude. Eta ariketa horrek beharrezkoa dirudi, bereziki gaur egungo garaietan. Dena horren azkar aldatzen doan eta etorkizuna hain ziurgabea den garaiotan, gure jendartea birplanteatzeko gakoak lor ditzakegu nerabeengandik, ohiko praktikak zalantzan jartzeko duten berriazko gaitasunagatik.

3. **NERABEZAROAREN INGURUKO IKUSPEGI BERRI BATEN BEHARRA**

“Nerabezaroa ikusezintasunean dago, eta existitzen ez denak ez du gizartearen parte hartzen.” Markel Ormazabal

Nerabezaroa ikusgarri bihurtzeko, ez da nahikoa izango etapa horren ezagugarriak ezagutzeta bakarrik. Nerabeei nondik eta nola begiratu nahi diegun ere erabaki beharko dugu.

Gure buruari galdetuko bagenio ea nerabezarora itzuli nahiko genukeen, oro har ezezkoa izango zen erantzuna. Zergatik? **Nerabezaro bizigarriak izatea oztopatzen ari gara?** Ezezkoetatik eraikitako nerabezaroaren ikuspegia deseraiki behar dugu. Benetan, nerabezaroa ere bizitzeko etapa bizigarri eta desiragarri bat izan dadin, berriz bizitzea gustatuko litzaigukeen etapa bat.

Nerabezaroa ulertzeko eta horrekin konektatzeko oso baliagarria izan daiteke gure nerabezarora itzultzeko saiakera bat egitea. Gu geu behin izan ginen nerabe haiekin konektatu eta garai hartara bidaiatzea. Kontzienteki garai hartako pentsamenduen datu basera joatea, orduko gorputzaren pertzepzioa berreskuratzea, sentitzen genuenarekin konektatzea... egungo nerabeekin enpatizatzeke ezinbesteko aurre ariketa izan daiteke.

Nerabezaroaren inguruan garatu nahi dugun ikuspegi berri horrek, pertsona oso gisa ulertu nahiko lituzke nerabeak. Pertsona moduan dituen gaitasun guztiak kontuan hartu, eta ez soilik helduon ikuspegitik garrantzitsuak diren gaitasun, jarrera eta ezagutzetara mugatuz. Nerabeen garapen integrala eta parte-hartzea sustatuko duen ikuspegi baten beharrean gaude, gaitasun pertsonalak garatu eta nerabeen ekarpeni lekua utziko diena. Jarrera aniztasuna eta nerabeen heterogeneitatea kontuan hartu, garapen faktore positiboan aldeko apustua egin, eta nerabeen arazoetan baino, horiek duten potentzialitatean indarra egingo duena. **Ezezkoetatik baino baiezkoetatik eraikitako ikuspegi berri bat.**



Nerabeak kode eta estilo propioekin elkartzen eta taldekatzen dira. Erakundeetan (familia, eskola, etab.) mugitzen dira. Beste batzuek ezarritako mundu baten oztopoak edo aukerak aurkitzen dituzte eta ahal duten moduan gainditzen dituzte. Elkarrekintza horretan, beraien barne-mundua antolatzen dute, beraien subjektibotasuna. Barne-mundu hori eskubidedun subjektu gisa jartzen dituzten pertzepzio eta zentzumenerkin pentsatzea eta antolatzea, bizi diren munduko jarraibide eta arauen diseinuan esku hartzeko duten aukeraren mende dago, eta helduak izatea egokituko zaie. Hori da, laburbilduz, parte-hartzearen zentzua; gure garaiko gaitzen aurkako konjurua baino gehiago, gizartearen zati aktibo izango den subjektibotasun independentea eraikitzeko apustua da.

I. Konterllnik: nerabeen parte-hartzea: exorzismoa edo herritartasunaren eraikuntza? - 79-108 or.

“Nerabearoa ulertzeko eta horrekin konektatzeko oso baliagarria izan daiteke gure nerabearora itzultzeko saiakera bat egitea.”

Gustatuko litzaidake jakitea zu ere nire adinean nola ibiltzen zinen.

Zera. Ni. Beno. Beste garai batzuk ziren.



Nerabeen parte-hartze eskubidea bermatzeko, **proposatzen dugu nerabearoa ulertzeko egon den interpretazio historikoa ezinbestean berrikustea**, eta zalantzan jartzea trantsizio edota helduarorako hastapen etapa gisa definitu dituzten paradigma tradizionalak.

Nerabeei era honetako mezuak helarazten dizkiegunean; ez zara ez heldua ez haurra, trantsizioan zaude, haur handia zara, formatzen ari zara, krisian zaude, gatazkak sortzen dituzu, arrisurtsua zara... Horrek ondorio nabarmenak ekar ditzake nerabearen izaeraren autoeraikuntzan.

Era berean, nerabeak heldutasun sozial gabeko pertsona moduan ulertzen baditugu, hau da, esperientzia gabeak; subjektu izateko aukerak ukatzen ari gatzazkie. Subjektu izaera hori ukatuz gero, ez dira gai edo ahaldunduak sentituko espazioetan, prozesuetan edota jendar-tean parte hartzeko. Oso garrantzitsua da horretaz jabetzea. Gu geu nola sentitzen gara ditugun gaitasunak, balioak, ahalmenak edo gurea den zerbait kentzen digutenean? Edo zerbait adierazteko, zerbaiten parte izateko, entzunak izateko aukerarik ez dugunean?

Norbanako moduan bizirauteko, garrantzitsua da pertsona oso bezala airtortua izatea, parean daukagunak gu ikustea, eta ildo horretan, nerabeak ere beharrezkoa du mezu hori jasotzea.



Familiak, komunitateak eta jendar-teak, nerabeak badirela eta balioa dutela airtortzea garrantzitsua da, honela nortasun positibo bat garatzeko baldintzak sortuko dira.

Garrantzitsua izango da, beraz, nola izendatzen, ezaugarritzen eta ulertzen dugun nerabe subjektua. Horrek baldintzatu baititzake nerabearen nortasunaren eraikuntza-prozesua, harremanak eraikitze modua, testuinguruarekiko elkarrekintza-mota eta antzeko beste zenbait alderdi.

Nerabearoa norbanakoaren bizi historiaren etapa propio bezala eta prozesu sozial baten ondorio bezala ulertzera gonbidatu nahi zaituztegu. Modu honetan, trantsizioaren ideiatik (izaera propiodun subjektu bezala ezerezten duen ikuspegi horretatik) transmisioaren ideiarda pasatzeko.



Oinherrian onartzen dugu nerabeak, bizitzako etapa berezi batean dauden pertsonak direla eta bizi-etapa honetan bereziak diren ezaugarri propioak dituztela. Etapa horretan jendarteak nerabeari praktika, sinesmen eta balio sistema oso bat transmititzen diola ulertzen dugu. Aldi berean, nerabeak horiek baztertu, onartu edo berrikusten ditu. Nerabearoan hasten baita pertsona modu autonomo eta independenteago baten funtzionatzen, inguru sozial eta kolektiboarekin elkarrekin-tzan bere lekua eginez.

Bizi ariketa horretan, etengabe ari da nerabea erabakiak hartzen, erabakietakoa adierazten, autoerregulatzen, mugak identifikatzen... Beraz, gairu bada. Baina, noski, identitatea eraikitzeko prozesu konplexu honetan, nortasun positibo bat eraikitzeko gaitasuna, bizitzen dituen esperientzien eta izaten

dituen aukeren arabera izango da, egiten zaion aitortzaren, berarekiko dugun konfiantzaren, eta helduengandik jasotzen duen bide-laguntzaren arabera, alegia.

Beraz, nerabeak, bizirauteko eta gartzeko, beharrezkoa du zerbaitetan parte hartzea eta zerbaiten parte sentitzea; entzuna izatea; eragiten dioten erabakien inguruan informatua eta aintzat hartua izatea, eta iritzia emateko aukera izatea. Horregatik guztiagatik da oinarrizko eskubide unibertsal bat nerabeen parte-hartzea, bizirauteko, garapenerako eta babeserako eskubi-deak diren bezala.

“nerabeak heldutasun sozial gabeko pertsona moduan ulertzen baditugu, subjektu izateko aukerak ukatzen ari gatzazkie.”

2. NERABEAK ETA PARTE—HARTZEA

“Kontua da gure herriko nerabeek ez dutela ekintzetan parte hartzen, ertz batean egoten dira begira... gainera, ez dakite euren kabuz antolatzen eta eskaintzen diegun horretara hurbiltzea kosta egiten zaie. Guk nahi dugu beraiak aktiboak izatea.” (azken aldian zenbait herritan jasotako iritzia)


Jendarteko kide izateak ez du esan nahi helduen munduko kide izatea halabeharrez. Nerabeen logikak eta helduonak ez dira berdinak eta, ondorioz, ez dauka zentzurik helduon parte hartzeko moduetan nerabeak txertatu nahi izateak. Nerabeek oso presente dute helduen ahotsa, eta askotan zapalduak sentitzen dira, eta euren iritzi propioak emateko lotsa edo gutxiespena sentitzen dute.

Oso hedatua dagoen aurreiritzia da nerabeak pasiboak direla, eta zerbait egiten dutenean ere (herrian parte hartu, ekintzak...) ez dute babesik aurkitzen. Helduengandik “aktiboak” izateko

jasotzen duten presioaz gain, gauzak nola egin beharko lituzketen ere entzuten dute. Oinherritik, ordea, nerabeekin parte-hartzea lantzerakoan beste logika batzuetatik aritzea proposatu nahi dugu.

Nerabeek iraganeko moldeak berrikusi eta astintzen dituzte etengabe, zailentzen jartzen dute helduon logikatik eraikitako jendartea, eta hori aukera zoragarria da eraldaketarako. **Zintzotasunez nerabeei entzuteko prest bagaude, hori aldatetarako pizgarri izugarria izan daiteke;** elkarrekin egonez, parte hartzea landuz, galdetuz eta bizipenetik eraikiz.

“helduon parte hartzeko moduetan nerabeak txertatu nahi izateak ez dauka zentzurik.”



2.1. PARTE-HARTZEAREN KONZEPtua BIRPENTSATZEA

Egun, parte-hartzea oso zabaldua dagoen kontzeptua den arren, praktikan benetako parte-hartzea garatzea falta dela uste dugu. Sarritan parte-hartzearen kontzeptua nerabeentzako helduok pentsatu eta diseinatutako ekintza eta zerbitzuen “kontsumoarekin” lotu izan ohi da. Guk Oin herrin parte-hartzea gizartea eraikitzeke eta bere identitatea definitzeko tresna bezala ulertzen dugu. Horretarako, beharrezkoa ikusten dugu prozesuak nerabeentzat egitetik nerabeekin egitera pasatzea.

Parte-hartzea; eskubidea, prozesua, jarrera, harremanak eraikitzeke eta komunitatea antolatzeke modua ere badela uste dugu. Horrek jendartean modu aktiboan egotea dakar (bartztea, ekarpenak egitea, konpromisoak hartzea, elkarri eragitea, eraldatzea, inplikatztea ...). Parte-hartzea nitasunetik gutasunera pasatzeko prozesu moduan ere ulertzen dugu, elkarri entzunez eta aintzat hartuz, elkarren zaintzaileak izango diren komunitateak eraikitzeke tresna gisa.

Beraz, ezin da izan moda bat, kanpaina bat, interes jakin batzuk asetzeko erabiliko den estrategia bat, ekintza edo zerbitzuen “kontsumo” huts bat.

Parte-hartze eredu berri bat behar dugu, azken urteetan oso modan jarri diren prozesuak gainditu, eta parte-hartzea

benetan gobernantza publiko komunitario baterako tresna izatea nahi badugu. Herritarrei zer nahi duten galdetze hutsa ez dugu parte-hartze moduan ulertzen.

Elkarrekin herri bezala zer behar dugun pentsatzea izan daiteke abiapuntua, batera eraikitzen ikasten hasteko. Hau da, zerbaitetan parte hartzetik zerbaiten parte izatera pasatzea. Horretarako, elkarlan horizontalerako metodologia berriak eta espazioak eta egiturak sortzea ahalbidetu beharko dugu, “komunaren” logika kolektiboa berreskuratu eta erantzunkidetasuneko erabaki guneak sortuz. Horrekin batera, harremanak izateke modu berriak jorratzea eta botere harremanak iraultzea ere proposatzen dugu.

***Parte-hartzea izen moduan ulertu beharrean aditz gisa ulertzen has-
tea proposatzen dugu,*** etengabeko eraikuntzan dagoen zerbait bezala. Ez baitago ongi edo gaizki egiteke modu bakar bat, egiteke modu berrietara etengabeko egokitze bat baizik.

“harremantzeko modu berriak jorratzea eta botere harremanak iraultzea ere proposatzen dugu.”



Garrantzitsua da ulertzea parte hartzeko aukera ez dela nik zuri ematen dizudan zerbait, berezko eskubide bat baizik. Norberari zor dioguna, eta elkarri zor dioguna, herrikide, bizilagun, lagun, ikaskide edo lankide bezala.

Hau guztia nerabegarora ekarrita, nerabeen parte-hartzea ez da soilik aurre-rapen demokratiko bat, behar bat da. Bizitzako eta ongizateko helburuetan nerabeen parte-hartzerik gabe, ez delako posible izango jendartearen kalitatezko giza garapena ematea.

Baina, parte hartzeko, NAHI izan behar da, AHAL izan behar da eta JAKIN egin behar da.

Orain arte aipaturiko guztian ados egonik ere, haur eta nerabeen parte-hartzea errealitate bihurtzeko pauso asko eman beharra dago oraindik bizi garen jendarte helduzentrista honetan. Bestiak beste, **helduak ez gaudelako ohituta nerabeei entzuten.** Nerabeek beraiek ere sarri iritzia emateko gaitasunik ez dutela uste dutelako, parte hartzeko nahikoa informatuta ez daudela uste dutelako edo, besterik gabe, beren buruari betoa jartzen diotelako, helduok entzungo ez diegulakoan. Gainera, maiz, nerabeak sozialki parte aktibo bezala onartzeko erresistentziak antzematen dira helduen artean, nerabeen parte-hartze ezaren inguruko erantzukizunak kanpo faktoreei egotzita, bestiak beste, indibidualizazioari



eta nerabeek paso egiten dutenaren usteari. Are gehiago, **nerabeek euren kabuz abiatu dezaketen edozein ekimen susmagarri bihurtzen da egungo gizartean.**

Ezintasunak ezintasun, ezin dugu ahaztu parte-hartzeak, eskubide bezala, atea zabaltzen diela adinagatik boto bidez jendartean parte hartu ezin dezaketen pertsoneri. Modu honetan, parte-hartzean trebatzen diren nerabeek erantzunkidetasun handiagoa garatzen dute beraien bizitzen inguruko gaietan. Beraien buruengan konfiantza garatuz, autoestimua eta autonomia indartzen dira. Sentitzen dute beraien iritzia baliogarriak direla eta, bakarra den esperientzia eta ezagutza dutenez, jen-

darteko hainbat espazio eta gunetan ekarpenak egin ditzaketela. Jendarteko partaide izatearen sentimendua sustatzen da, eta horrek komunitatearekiko erantzunkidetasun sentimendua indartzen du.

Gainera, parte-hartzean trebatzen diren nerabeak babestuago daude, beraien kabuz adierazteko gai direnak eta informatuta daudenak mehatxuei hobeto aurre egin diezaiekete, laguntza eskatzen dakite eta arrisku egoerak saihesteko prestatuago daude. Aldaketak sustatzeko gaitasuna garatzen dute eta kultura demokratikoan hezten dira (ikuspegi desberdinak entzun, aukera desberdinak aztertu eta erabaki-hartzea elkarbanatu...).

Beraz, nerabeen benetako parte-hartzea sustatzeko, **ez da nahikoa izango soilik nerabeen eskubideak aldarrikatzea, parte-hartzea bera praktikara eramatea ezinbestekoa izango da**, horretarako testuinguru egokiak sortuz. Parte hartzen ikasteko modu bakarra baitago: parte hartuz.


“nerabeak sozialki parte aktibo bezala onartzeko erresistentziak antzematen dira helduen artean,”

2.2. ERREZETA MAGIKOA BADAGO: GU GEU GARA OSAGAI NAGUSIA

Beti esaten da nerabeekin parte-har-
tzea lantzeko errezeta magikorik ez
dagoela. **Guk uste dugu badagoela,
eta osagai nagusia gu geu garela.**
Nerabeekin lan egiten dugun hezitzaile-
leok egiten dugun lan horretan benetan
sinesten badugu, egiten dugun hori
babestu, sortu-amestu, gauzatu eta
berrikusteko gai bagara, gu geu izan
baikaitezke gakoa. Bakoitzak dugun
arduraren jabe egitean eta hor koka-
tzean, gu geu bihurtzen baikara osagai
garrantzitsu.

Nerabeekin lan egin eta prozesuaren
osagai garrantzitsu bilakatu nahi badu-
gu, gogoia eta ilusioa bakarrik ez dira
nahikoa izango. Arrantzale batek arrai-
nak harrapatzeko prozesuaren metafo-
rarekin azalduko dugu jarraian:

**Nerabeekin lan egiten
dugun hezitzaileok egiten
dugun lan horretan benetan
sinesten badugu, gu geu
izan gaitezke gakoa.**




1- Ur ertzeko arrantzale ilusionatua:

erosi berria duen kanaberarekin, aulki txiki batekin, meriendarekin, amu batzuekin... hondartzako izkinan jarri da. Arrantzale-mota honek badaki zerbait, ikusi izan ditu beste arrantzale batzuk leku horretan arrantzan. Beraz, amua bota du eta arrainek amua noiz irentsiko zain geratu da. Hainbat saiakera egin ondoren, amuan zerbait jartzea ahaztu zaiola konturatu da. Hurrengo saiakeran, berriz, amuan zizarea jarri du, baina ikusi du arrainak ez direla gerturatzen, usain goxorik apenas botatzen duelako, edo oso handia delako, edo ordua pasatu zaiolako, edo beste leku batean daudelako arrain guztiak eta ez bera dagoen lekuan. Ilusioa eta gogoia ez dira nahikoak.

2- Ur ertzeko arrantzale ilusionatu eta kontzientea:

borondatea behar da, bai. Gogoia, ilusioa eta grina osagai garrantzitsuak dira, baina parean dauka-
gun eta arrantzatu nahi dugun hori
ondo ulertu eta ezagutu behar dugu.



Zer gustatzen zaio jateko? Zerk motibatzen du hurbiltzera? Zergatik daude hor eta ez hemen? Noiz da ordu ona amua botatzeko? Agian botak eta urpeko betaurrekoak jantzita arraintxoak behatu eta horien portaerak ezagutu beharko ditugu.

3- Arrantzale arrantzatua: Kasu batzuetan arrantzaleak logika aldatuko du eta, arrantzatu eta arraina otarrera ekarri baino, nahiago izango du aske, goxo eta bizirik uztea, eta haiekin batera igeri egitea. Arrantzalea arraina arrantzatzeko nahiak baino beste zerbaitek aseko du: denon artean erabakitzea norantz jo, norantz igeri egin, zer eraiki...

Azken fase hau da politena, bai hezitzailearentzat baina baita nerabearentzat ere. Eraikitzaileagoa da eta arrastoa uzten du norbanakoengan eta kolektiboarengan. Hezitzailearen figurak erdigunea elkarbanatzen du nerabeekin, elkarrekin sortzeko prozesu bat eraikiz. Hezitzailea bidelagun izatera mugatuko da eta baliabideak eskainiko



dizkie nerabeei jendarteko sistemaren parte izan eta sentitzeko. Batzuetan, ikusgarria den zerbait sortuko da (zerbitzu bat, jaialdi bat, egitarau bat...), beste batzuetan, aldiz, ez. Ikusten denari ematen diogun garrantzi bera eman beharko diogu ikusten ez den horri ere, prozesuari emaitzari baino garrantzi gehiago emanaz.

Noski, horrek guztiak dedikazio, konpromiso, mimo eta zaintza handia eskatzen ditu. Alde batetik, hezitzaileok presentzia eta denbora eskaintzea nerabeekin egiten den lanari. Eta beste alde batetik, lan hori aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideak ahalbidetzea.

Beraz, errezeta magiko horretako osagai garrantzitsu izan nahi badugu, hasieratik garbi izan behar dugu non kokatu nahi dugun, zertarako prest gauden eta heldu moduan dugun boterea nerabeekin banatu nahi dugun ala ez. Horrela eraiki ahal izango dugu nerabeekin benetako parte-hartzea.

2.3. **NERABEEN PARTE-HARTZEA:** **“NAHI, JAKIN ETA AHAL”**

PARTE-HARTZE PROZESUAK:


Aipatu dugunez, partaidetza norbere izaeraren eraikuntzan ezinbesteko ez-augarria da, eta, era berean, herri bat eraikitzeari begira oinarritzko tresna bat izango dugu. Ondokoaren errekonozimendutik eta parekidetasunetik abiatzen den eraikuntza pertsonal eta kolektiboa da parte-hartze prozesu bat. Norabide argi bat izango duen prozesua da (helburuak argi dituena), baina helmugari baino bideari berari emango dio garrantzi handiagoa. Ikaskuntza prozesua da, bertan parte hartzen duten pertsona eta kolektibo guztiak ikasketa prozesu iraunkor batean murgilduko baitira.

Partaidetzak sortzailea eta erakar-garria izan behar du. Errealitatearekin bat datorrena eta inklusiboa. Ulermen,

eztabaida eta elkarrizketarako espazio erosoak eskainiko dituena, jendearen lorpenetan sinetsiko duena, eta gatazkak ikasketa prozesu bihurtuko dituena. Jendarte trebatuago eta ho-beago bat lortzeko bidean lehen gisa ulertzen dugu partaidetza.

Prozesu parte-hartzaileak ez du soilik errealitatea ezagutu nahi, errealitatea eraldatu nahi du.

Nerabeak ez daude oso urruti helduon errealitatetik. Gure buruari galdetzen badiogu ea noiz eta zergatik parte hartzen dugun guk zerbaitetan, eta noiz ez, hortik erantzun asko jaso ditzakegu. Gogoan izan behar dugu parte-hartze prozesu bat hainbat faktorek baldintzatu dezaketela:



**“Nerabeak
ez daude oso urruti
helduon errealitatetik.”**



Parte hartzeko baldintzak:

Lehenik eta behin, prozesuan **parte hartu NAHI izan behar da**, partaideek interes bat adierazi behar dute. Ezin da behartua izan, berezkoa eta norberaren nahi eta beharretatik abiatutakoa baizik. Nerabea zerbaiten parte izango da gaiak zuzenean eragiten diola ikusten badu, barnean zerbait mugitzen bazaio, ekarpenen bat egiten badio (partekatzea, eraikitzea, momentu onak pasatzea, lagun berriak egitea, esperientzia berriak bizitzea...). Motibazio hori hiru mailatan ikus daiteke:

- **Interes ideologikoa eta subjektiboa:** partaideak prozesuaren helburuekin identifikatuta sentitzen direnean.
- **Asebetetze sozioafektiboa:** gainontzeko kideekin interesak eta beharrak partekatzeke aukera duenean.
- **Errentagarritasun pertzepzioa:** egingo den lan hori nerabeentzat ballagarria izan go dela, eta haien interesak aseko direla bermatzen denean.

Horrez gain, **parte hartzen JAKIN egin behar da**, prozesua bera ikasketa prozesu bat delako. Inoiz logika parte-hartzaileetan egon ez denarentzat arrotza izan liteke, adibidez, metodologia parte-hartzaile espezifiko batzuetan aritzea. Parte hartzen parte hartuz trebatzen eta ahalduntzen da bat. Horregatik, garrantzitsua da parte-hartzaileek informazio guztia izatea eta tresnak haien esku jartzea, baita tresna horiek erabiltzeko modua adostea ere:

- **Eginbeharretarako formazioa:** partaideek beharrezkoak diren gaitasunak eta ezagutzak dituzten aztertu beharko dugu, hala ez balitz prozesua parte-hartzaileen arabera moldatzeko. Kontuan izan behar dugu jakintza faltak frustrazio edo porrot sentimendua sor dezakeela.
- **Komunikazio eta kohesio gaitasuna:** partaideen arteko harreman positiboak eraikitzeko gaitasuna bultzatuko da. Komunikazioa bideratu, gatazkak azaleratu eta konpondu, elkarlana bultzatu eta batera eraikitako zerbait sortzen dabilenaren sentimendua transmititu behar da.
- **Antolaketaren ezagutza:** prozesuaren antolaketa planifikatzen, aurrera eramaten, bideratzen eta ebaluatzen jakin beharko dugu.

Partaideen jakintza eta nahia bultzatzeaz gain, **azken baldintza parte hartzeko aukera izatea, AHAL izatea izango da**. Nerabeak gonbidatuak/deituak ez badira edota beraien parte-hartze eskubidea babestua ez bada, nekez hartuko dute parte zerbaitetan edo nekez bilakatuko dira zerbaiten parte.

Parte hartzeko aukerak ez dira soilik espazioak erraztuz eta deialdia eginez ematen. Arreta jarri behar dugu ondorengo puntuetan:

- **Proposatzen dugun hitzorduekin** zein nerabe talde sentituko da deitua? Ordutegi aproposenean egin dugu?
- **Proposatu dugun espazioa** ezaguna da nerabeen artean? Gertukoa da nerabeentzat? Erreferentzia gunen naturala da?
- Planteatuko dugunak **erritmo eta behar ezberdinetara egokitzeko aukera** ematen du?

“garrantzitsua da parte hartzaileek informazio guztia izatea eta tresnak eskuragarri jartzea, baita tresna hauek nola erabili adostea ere”

Parte hartu ahalko dutela bermatzeko, parte hartzaileen esku jarri behar ditugu metodologiak eta aurrera eramaten diren dinamika/ekintzak:

- **Betebeharren antolamendua:** zeregin zehatzak egiteko lantaldeak antolatzea lagungarria litza-teke, horrela partaideek gauzatze eta erabakitze momentuetan parte hartu ahal izatea bideratzen da.
Parte hartzeko modu ezberdinak ere badaudela aitortzea. Hitza hartzeko aukera bermatu behar da, baina ulertu behar da ez dela soilik hitza hartuz parte hartzen.
- **Komunikaziorako eta kohesiorako taldearen antolamendua:** kideen arteko komunikazioa erraztu beharra dago eta horretarako mekanismoak diseinatu eta martxan jarri beharko ditugu (bideak, egiturak...).
- **Espazioa eta testuingurua ere kontuan izango ditugu, eta egoiak direla ziurtatuko dugu.** Konfiantzazko eta epaiketarik gabeko espazioa izatea.
- **Botere harremanak eta zapalkuntzek ahalik eta espazio txikiena hartzea.** Beti egongo dira (adina, generoa, kultura, gaiarekiko ezagutza maila...), baina garrantzitsua izango da horren kontzientzia hartzea eta ahalik eta gehien zaintzea.



2.4- PROZESU PARTE-HARTZA-LEAK GARATZEKO OINARRI METODOLOGIKOA

Nerabeen parte-hartzea botere harremanetan esku hartzeko tresna da eta, era berean, botere harremanak demokratizatzeko aukera ere ematen digu. Beraz, parte-hartze prozesu bat eraldaketarako ekintza metodologiko politiko bat dela esan genezake.


Aurrez esan bezala, prozesu parte-hartzaileak ez du soilik errealitatea ezagutu nahi, errealitatea eraldatu nahi du; horregatik, ikasketa prozesu bihurtzen da parte-hartzaileentzako.

Prozesu parte-hartzaileen eskema metodologikoa

Prozesu parte-hartzaile bat planteatzeko orduan, hurrengo irudian ikus

daitekeen bezala, argi izan behar da prozesuaren baitan irekiera eta itxiera uneak irudikatu behar direla. Hau da, informazio-jasotzea gauzatzea garrantzitsua izan daiteke, baina ondoren hori sintetizatzeko tarreak ere berebiziko garrantzia du, aurrera begira jartzeko heldulekuak identifikatzeko. Etengabeko irekitze batean bagaude, zailagoa izango da ondoren heldulekuak identifikatzea, hain zuzen ere, informazio ugariren artean norabidea ere gal daitekeelako. Horregatik guztiagatik, baliagarria izan daiteke fase bakoitzean egin beharrekoa eta hortik atera beharrekoa aurrez definitzea, ekiteko garaian urratsak argi izateko.





Nerabeekin parte-hartze prozesu bat abiatzean jarraitu daitezkeen urrats posibleak ondorengo hauek dira:

- **Proiektuaren definizioa:** urrats honetan eginkizun nagusia da helburuak, zer/zertarako, norekin, joko arauak eta kronograma posible bat zehaztea.
- **Diagnosiaren txosten irekia:** behin proiektua definituta, hurrengo urratsa eremua arakatzea izango da. Horretarako, informazioa jasotzea izango da gakoa, hau da: gaiaren inguruan zer saiakera/ eduki dagoen, zer iritzi dagoen eta zer egin daitekeen ezagutzea eta horretan guztian sakontzea.
- **Jasotakoaren sintesia eta ekintza plana:** aurreko urratsean jasotako informazioa modu ordenatu eta argigarrian eman (informazioa itzuli), proposamen zehatzak definitu, konexio puntuak bilatu, eta erantzukizun zein konpromisoak definitu beharko lirateke.
- **Ebaluazioa:** egindako ibilbidea ebaluatzeko irizpide, adierazle eta uneak definitzeaz gain, aurrera begira lanean jarraitzeko lan-ildoak identifikazioa.

Egitasmoa: Proiektuaren definizioa

- Helburuak argitu (inplizituak ere bai):
- ZER , ZERTARAKO (parte hartzearen funtzioak), NORENTZAT
- Metodologia: NOLA
- Konpromezuak: NORTZUK
- Egutegia

Diagnostikoaren txosten irekia

- Zer dago? (egoera, baliabideak, taldeak, sareak...)
- Nola ikusten dugu/dute?
- Zer egin ezakegu? (elkarrizketak, tailerrak, bigarren mailako datuen azterketa, behaketak, soziograma...)

Txostena eta ekintza-plana

- Ezagutzaren deboluzioa
- Proposamenak definitu eta adostu
- Sareak indartu eta konektatu
- Erantzunkizun eta konpromezuak definitu

Ebaluazioa

- Martxan jartzea
- Ebaluazio plana (irizpide eta adierazleak)
- Kezka berriak jasotzeko adi



Parte hartze prozesuen oinarrizko zortzi alorrak

Atal honetan azaltzen dira udala, eragileak eta nerabeak barnebiltzen dituzten prozesuak diseinatzeko garaian, gure ustez, aintzat hartu beharreko zenbait alor. Kasu honetan, tipologia horretako prozesuetan jarri dugu fokua, baina kontzeptu orokor gisa, abiapuntua definitzeko ere baliagarriak izan daitezke (zer, zergatik, zertarako, nortzuk...)



GALDEGAIA

NONDIK

1. ZER

2. ZERGATIK

3. ZERTARAKO

4. NORTZUK

5. NOLA

6. NOIZ

7. NON

8. ZEREKIN

TEKNIKOKI NOLA IZENDATU

GINARRI TEORIKOA

PROZESUAREN AZALPENA

(Mugak, arauak, espektatibak, konpromisoak...)

ERREALITATEAREN AZTERKETA

HELBURUAK

HARTZAILEAK, ERAGILEAK

METODOLOGIA

DENBORALIZAZIOA

PARTE HARTZE EREMUAK

BALIABIDEAK

(Giza baliabideak, materialak...)

EBALUAZIOA

Marko Teorikoa (Nondik?)

Elkar ulertzea ahalbidetzeko eta prozesua bideratuko dugun eragile eta pertsonok sintonian gaudela ziurtatzeko, beharrezkoa izango da oinarrizko kontzeptuak adostea: nola ulertzen dugu parte-hartzea? Nola nerabearoa?

Prozesuaren azalpena (Zer?)

Prozesu parte-hartzaileak mimoz eta herri bakoitzaren errealitatera moldatuz landu behar dira, prozesuaren nondik norakoak modu argian azalduz.

- Joko arauak zehaztu behar dira. Horiek borondate politikoa adierazten dute.
- Lidergotik alde bakarrez edo era demokratikoan zehaztu daitezke.
- Prozesuaren muga ekonomiko, politiko eta teknikoak argi adierazi behar dira.
- Edukia argia eta zehatza izan behar da.
- Prozesua dinamikoa izan behar da: komunikaziorako espazioak sortu behar dira.

Nolakoak izango dira "joko arauak"? Zertarako nahi dugu zuek parte hartzea? Zein da prozesu honen errealitatea?

Hala ere, orokorrean hezitzaileek eta talde eragileak izango dituzten funtzioak ondokoak dira:

• **Diagnostikoa**

- Herriko errealitatea behatzea eta eragileekin batzea.
- Nerabeekin galdetegiak edo talde txikitako elkarrizketak sustatzea.

• **Nerabeen arteko ezagutza**

- Nerabeekin hartu-emanen dauden hezitzaileekin batu eta saioak nola egin adostea.
- Saioak programatzean nerabeen ezaugarri eta askotariko beharrrak kontuan hartzea, beraien-tzat erakargarri izan daitezkeen egiteko moduak erabiliz.
- Programan zehaztutako ekintzak gauzatzea eta ekintza berriak proposatzea, beharren arabera.
- Ekintza eta nerabeen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

• **Komunikazioa**

- Udalarekin zein eragileekin etengabeko harremana izatea.
- Protagonista izango diren nerabe horiekin komunikazio kanalak sortu eta elikatzea.
- Komunikazio-lanak egitea (sare sozialak, zabalpena...).

- **Koordinazioa**

- Espazioa zaintzea eta materialaz arduratzea.
- Eguneroko beharrak kontuan izatea (materiala, azpiegitura...).
- Antolaketa funtzionamendu eta jarraipen-lanak egitea, koordinazio-zereginak egingo dituen pertsonarekin batera.

Errealitatearen azterketa (Zergatik?)

Parte-hartze prozesu bat martxan jartzen dugunean oinarritzkoa da prozesu horren zergatia argi izatea. Oso garrantzitsua da azaltzea zergatik jartzen dugun martxan partaidetza prozesua.

Arrazoi instrumentalak egongo diren arren, oinarritzko arrazoi/beharrak bateratu bat egon behar da.

Zein da gure inguruaren errealitatea? Zergatik da beharrezkoa prozesua?

Prozesuaren helburuak (Zertarako?)

Hasieratik prozesuaren helburuak ondo zehaztu behar ditugu.

- **Helburu orokorra:** gizarte errealitatea zehazten duena.
- **Helburu zehatzak:** neurgarriak eta hurbilak izan behar dira.

Zertarako bilduko ditugu nerabeak? Zertarako eskatuko diegu inplikazioa?
Garrantzitsua da galdera horiei erantzuten dieten helburu errealak marka-

tzea, motibazioa ez galtzeko eta frustraziorik ez sortzeko.

Jasotzaileak (Nortzuk?)

Eragile parte-hartzaileak definitu behar ditugu.

- **Kuantitatiboki:** ordezkaritzan aniztasuna egon behar da.
- **Kualitatiboki:** profil ezberdinak (adina, jatorria, ideologia, sexua...).

Antolaketa eta parte-hartzea ondo zehaztu behar dira: jarraipen batzordeak, lantaldeak, batzarrak... Talde eragilea / talde motorra / jarraipen batzordea.

Norekin parte hartu nahi dugu? Nortzuk parte hartuko dute momentu jakinetan?

Metodologia (Nola?)

7 fasetan laburbildu dezakegu metodologia prozesu parte-hartzaileetan

1. Kokapen politiko eta metodologikoa
2. Zenbait ikuspegitik egindako azterketa
3. Eztabaida
4. Jarduketa-proposamena
5. Erabakiak hartzeko prozesua
6. Itzulera
7. Ekintzen ezarpena

Oinarrizkoa da lana dinamikoa izatea, informazioa gardentasunez ematea, komunikazioa zaintzea, emaitzak ikus-tea, harremanak zaintzea...

Denboralizazioa (NOIZ?)

- Parte-hartze prozesuak ziklo luzeak izaten dira.
- Errealitatera egokitu behar dugu prozesua, ez errealitatea prozesura.
- Nerabeen denborak errespetatzearen garrantzia.
 - Nerabeei galdetzeraz bagoaz, eurekin lanean hastera bagoaz, aurrera begirako ikuspegi batekin egin behar dugu: zer da eskatu eta eskainiko dieguna? Zertarako egitera goaz diagnostia?
- Lansaioak: ordutegia, iraupena, perfila, parte-hartzea bermatzeko baliabideak zehaztu behar dira.
- Komunikazioa eta informazioa oinarritzkoak dira. Nerabeekin komunikazioa mantendu, ez dadila txanpiñoi bat izan.

Parte hartze eremuak (Non?)

- Eremuak eta lekuak.
- Non egingo dugun: eraikina, komunikazioa, neutralitatea, hurbila jendearentzat.

- Gelaren antolaketak izugarritzko garrantzia du parte-hartzea bermatzeko.

Non egingo ditugu saioak? Kide guztiak eroso sentituko dira bertan? Tokiak parte-hartzea erraztuko du?

Baliabideak (Zerekin?)

- Nolako baliabideak erabiliko ditugun zehaztu beharko dugu.
- Pertsonalak: prozesuaren koordinazioa eta dinamizazioa.
- Materialak: komunikaziorako tresna, adibidez.
- Denbora: kontuan hartu behar da eragile guztien errealitatea (militantzia, instituzioen liberatuak...).

Kide guztiek inplikazio bera izan behar al dute? Zelan bermatu dezakegu parte-hartzea maila ezberdinetan?

Ebaluazioa

Proiektua ebaluatzeko, ebaluazio ebolutiboa egingo dugu fase guztietan. Horretarako, proiektua garatzeko prozesuaren inguruko hausnarketa egingo dugu eta aurrez identifikatutako lan-ildoan inguruan izan ditzakegun beharrak, aukerak, oztopoak eta faktore erraztaileak identifikatuko ditugu.




Helduon rol-a

Aurrez aipatu dugun moduan, nerabeekin parte-hartzea lantzeko orduan, errezeta magikoaren osagai garrantzitsuenetako bat helduak gara. Ondoren go lerroetan ideia honetan sakontzen saiatuko gara, nerabeekin parte-hartzea lantzen dugun helduok izan behar genukeen rola-ren aspektu nagusiak azpimarratuz.

Ezer baino lehen, **bidelagun izatearen garrantzia azpimarratu nahi genuke**. Hezitzaileak edo bidelagunak lagunkoia izan behar du. Haztea eta ikastea onartu, talde prozesuekin

tolerantzia eta zintzoa izan eta noraino irits daitezkeen garbi azaldu behar die nerabeei (mugetan argia). Bestalde, nerabe-heldu arteko distantzia murriztearekin batera, lotura hurbila eta konfiantzazkoa izango du, eta taldean sortzen diren arazoaren aurrean sentikor agertu beharko da. Baita ekarpenak egiteko gai izango da, eta ez ditu inposatuko.

Nerabea bera baino gutxiago ez dela garbi izan, hura subjektu aktibo moduan onartu eta berdinetik berdineraz zintzotasunez jarduteko gai izan behar




du, taldeko partaide bat gehiago dela sentituz. Aldi berean, heldu bezala jendarteak eman dion botereari uko egin, eta horizontaltasunaren aldeko jarrera kontziente bat garatu beharko du.

Harremanak izateko orduan, **nerabeengan konfiantza izan beharko du:** erantzun baino gehiago galdetu egingo du, eta hitz egin baino gehiago entzun egingo du. Horrekin, bi norabideetako errespetuzko komunikazioa ahalbidetuko litzateke. Komunikazioaz gain, garrantzitsua da **prozesuan emaitzetan baino indar gehiago jartzea;** ent-

zun-elkarbanatu-erabaki-egin-ebalua-tu eta berriz hasteko borondatea zein denbora eta erritmo guztiak errespetatzeko borondatea azalduko da.

Aipatutako horrek guztiak **etengabeko prestakuntza eskatzen du, eta nerabeekin lan egiten duten helduen garrantzia aitortu beharra ere bai.** Heldu bezala jendarte honek eman dizkigun pribilegio eta botereak errebisatzeko gaitasuna landu, eta horiei uko egiten ikasi. Saiatuz gero, nerabeekin lan egitea bizitzarako irakaspen zoragarria izan daiteke.



“Haztea eta ikastea onartu, talde prozesuekin tolerantzia eta zintzoa izan eta noraino iritsi daitekeen garbi azaldu behar die nerabeei (mugetan argia).”

“Harremantzerako orduan, nerabeengan konfiantza izan beharko du; erantzun baino gehiago galdetuz eta hitz egin baino gehiago entzungo duena bihurtuz.”

3. BALIZKO PROZESU BAT

Teoria hau guztia apur bat lurrera ekartzeko asmoz, balizko egoera baten arabera prozesu parte-hartzaile baten hasiera irudikatuko dugu jarraian, asmatutako herri batean, lagungarri izan daitekeelakoan.

Oinheritik sustatzen ari diren herri hezitzaileen sarean sartu berri den Xirimiri herriko udaleko kidea zara, ilusioz beteta zaudete lantaldean, baina ez dakizue nondik hasi.

Zuen herriak 4000 biztanle ditu. Lehen Hezkuntzako eskola herrian bertan baduzue ere, DBH ikastera alboko herri handiago batera joaten dira herriko nerabeak. Hori horrela, alboko herri horretan geratzeko eta han biziaren zati handi bat egiteko joera dute askok. Hainbat modutan saiatu zarete erakargarriak izan daitezkeen ekintzak asmatzen, baina horiek ez dute fruitu gehiegi eman. Oinherriren filosofiarekin guztiz bat eginda, konturatu zarete nerabeek eurek bakarrik esan diezazueketela zer behar duten. Baina, nondik hasi?

Lehenik eta behin, dagoeneko nerabeekin aritzen diren herriko eragileak deitzea erabaki duzue, horiei Herri Hezitzailearen filosofia azaltzeko saio bat antolatu, eta herrian ikusi duzuen erronka partekatzeko probestu duzue. Hainbat eragiletako kideak azaldu dira: Euskal dantzako irakaslea, guraso elkarteko kideak, gaztelekuko dinamizatzailea, udan kirol udalekuak

antolatzen dituen, kultura eta gazteria teknikaria eta bi zinegotzi. **Proiektuarekin bat egiteko prest azaldu dira eta talde motor bat sortu duzue.**

Pixkanaka elkartzen joan zarete, bakoitzaren rola zein izango den adosten, zein maiztasunekin elkartuko zareten, zenbat iraungo duten bilerek etab.

Nerabeekin egin nahi duzue bide hau, baina oso identifikatuak sentitzen zarete itsas-ertzeko arrantzaile ilusionatuekin. Ilusio asko eta arrantzarako gaitasun gutxi. **Nola gerturatu?** Agian taldeko kide batzuek ez duzue zuen burua ikusten nerabeei lehen gonbidapen hori egiten. Beraz, nortzuk izan daitezke urpeko betaurrekoekin nerabeen itsaso sakonean murgiltzeko prest dauden kideak? Talde motorrean dagoen dantza irakaslea prest agertu da, gertutik ezagutzen ditu nerabeetako asko eta bere lagun bat ere gomendatu du, beste bide batzuetatik harremana duena herriko nerabe askorekin.

Burokrazia dantza batzuen ostean, bi gazte horiei **baldintza duinak eskaini dizkiezue urtebetez prozesu sakon eta jarraikor batean murgildu ahal izatea bermatzeko,** lehen proba moduan.

Talde motorreko kide guztientzako formakuntzak antolatu dituzue, dagoeneko halako proiektuak egiten dituen kanpo talde baten bide-laguntza lotzearekin batera. Horiek, aurretik jasotako filosofia formakuntzak lurrera



“nortzuk izan daitezke urpeko betaurrekoekin nerabeen itsaso sakonean murgiltzeko prest dauden kideak?”

ekartzeko bide posibleetan trebatu zaitzute, “zer, zertarako, nortzuk, nola, noiz, non...?” Erabakiak hartzen eta kokatzen ari zarete elkarrekin. Azken finean, urpekaritza ikastaro teorikoak jaso dituzuela esan liteke.

Hasi dira lehen urperatze praktikak. Herri txikia izanik, nerabe asko ezagutzen dituzte hezitzaileek eta hainbat talde zein norbanakorengana gerturatzea izango da lehen erronka. Batzuk eliza azpiko gotorleku batean topatu dituzte, beste batzuk okindegian litxarreriak erosten, dantza saioen ostean, frontoiko harmailetan... 12-18 urte bitarteko nerabe gehienengana hurbildu eta proiektua azaltzea izan da lehen egun honen

“Bilaketa honetan, kontutan hartu dituzte bai adin, genero, zein jatorri anitzen faktoreak.”

helburua, bai eta aurkitu ezin dituztenei eskolan abisua pasatzeko eskatzea ere. Bilaketa honetan, kontutan hartu dira zenbait faktore: adina, generoa, zein askotariko jatorriak. Jatorriari dagokionez, batzuek familiak oso gertu ez dituztenez, jatorri askotariko jendea elkartzen den espazioak baliatu dituzte.

Hitz egindakoak: orain arte inoiz galdetu ez izana errekonozitu eta asmoak azaldu. Interesa izango zenukete? Hala bada, nola/non/norekin elkartzea litzake eroso zuentzat lehen bilera baterako? Nola jar gaitzke harremanetan?

Askok azaldu dute antolatzen hasteko interesa, eta **lehen bilera baterako adinkideekin erosoago egongo lirartekeela azaldu dute. Halaber, eurentzat erosoak diren espazioak proposatu dituzte.**

Bigarren elkartzeak: eskatu bezala, adinka deitu dituzue lehen elkartze “ofizialera”. Batzuekin eliza azpian, bestee-kin parke batean... elkartu zarete. Guztira sei talderekin elkartu zarete, 60 nerabe ingururekin. Saioaren hasieran **prozesu hau denontzako berria dela argi utzi duzue, emaitzak ez direla bat-batekoak izango eta elkarrekin joango zaretela bidea josten**, eta, beraz, lasai proposatu ditzaketela hobetzekoak.

Aurrez diseinatutako girotze-jolas eta -dinamika batzuekin, pixkanaka parte-hartzean entrenatzen hasi zarete. “Zerk egiten du Xirimirin gustura ibiltzea? Zerk ez? Zeren falta sumatzen dugu? Zer nahiko genuke? Zer behar dago nahi dugun horren atzean? Zerk egingo luke herria gureago biltzea?”. Ideia eta bizipenak azaltzen joan dira zaparrada moduan eta hori guztia biltzen joan zarete. **Hiru multzotan sailkatu dituzte nahiak eta beharrak:** haiek haien kabuz antolatu ditzaketena hezitzaileen laguntzarekin, haiek udalarekin elkarlanean egin ditzaketena eta udalaren esku leudekeenak bereziki (azpiegiturekin lotuak batez ere).



Hurrengo saioan beste adinekoekin batu eta eskaera/proiektuak bateratzeko prest azaldu dira.

Hirugarren elkartze handia: herriko beste nerabeekin elkartu eta dinamika parte-hartzaileen bidez, besteen proposamenak ikusi eta proposamen zerrenda amankomun bat osatzeko baliatu dute. Proposamen batzuk baztertu dira, beraldian atera zirelako eta beharrik ez baita ikusten dagoeneko; Beste batzuetan gehigarriak txertatu dira, proposamen batzuk fusionatu egin dira eta beste batzuk lehentasun bezala markatu.

“Guk egin ditzakegunak” izeneko multzoan esaterako, konturatu dira, askok eskatzen zutela beste adinekoekin elkartzeko espazioak egotea, konfiantza irabazten joateko. Beraz, talde txikietan proposamenak egin ostean, elkarrekin Aste Santurako irteera bat antolatzea erabaki dute. Horretarako, beharrezko azpi taldeak identifikatu eta osatu dituzte: nora joan, zer egin bertan, janaria... Eta udalaren zain dauden bitartean proiektu honi eustea erabaki dute.

“Baina nola egin udalaren azalpenak nerabeengana eroso eta gertuko iristeko?”

Udalera eta helduen talde motorrera helaraziko dituzten eskaeren erantzuna gutxi gorabehera noiz jasoko duten ere argituko die eta non/nola izango den adostu dute elkarrekin.

Helduen talde motor horri informazioa eman zaio etengabe prozesu osoan zehar, eta hezitzaileen pausoak ere horiekin adostu dituzte.

Eskaera zehatzak iritsi direnean, horiek aztertu eta erantzunak prestatu dituzue. “Baina nola helaraz diezazkiekegu nerabeei udalaren azalpenak, erosotasunez eta gertutasunez?” Horretarako, kanpotik **prestakuntza eta bide-laguntza ematen dizuen eragilearekin jarri zarete harremanetan**. Hasieran zerrenda ikusita larritasuna sentitu baduzue ere, zuen buruari gogorarazi diozue prozesu batean gaudela eta hau ez dela “eskatu eta eman” ariketa azkar bat. Beraz, proiektu bakoitzaren bideragarritasuna aztertu eta deialdi bat adostu duzue nerabeekin.

Lehen topaketa horretan, nerabeak elkartzen diren tokira gerturatu zarete. **Bertan azaldu dizkiezue proposamen bakoitzarekin dauden zailtasun eta erronkak** eta zeintzuk diren erraz bideratu daitezkeenak eta haien laguntzarekin posible izan daitezkeenak. Aurrekontuen munduaz ere aritu zarete, ulergarri gerta daitezkeen moduan. Eta burokraziaz hitz egin diezue eta azaldu diezue burokraziak dena mo-

teldu dezakeela. Idatzita eman diezue hori guztia, beraiek lasai azter dezaten. Galdera-erantzun tartearen ostean, hurrengo hitzordua jarri duzue, eta agurtu egin dituzue.

Nerabeak berriz elkartu dira, eta aurrekoan egon ez zirenei entzundakoen berri eman diete, bai eta transmisioa nolakoa izan zen baloratu ere. Eroso sentitu ginen? Ulertu genuen? Galdetzera ausartu ginen? Nola egingo genuke beste era batera?

Talde txikietan landu dituzte gaiak, interesen arabera, eta kontraproposamenak garatu dituzte. Zein proiektu utziko dugu pausan? Zerekin ez gaude ados? Eskatu dugun honen atzean beste behar bat zegoen, beste nolabait ase daitekeena? Nola? Hitz egindakoak helduen taldeari nola helarazi adostuko dute. Kasu honetan, ordezkari batzuk prest daude.

Honela hasi dute bidea Xirimiri herrian, oraindik bide luzea geratzen bazaie ere, Xirimiri Nerabeen Herri bilakatze-

ko lehenengo pausoak egin dituzte eta badoaz aurrera.


Nerabeekin parte-hartzea lantzen hasiteko eta herria eraikitzeke orduan nerabeak ere kontuan izateko, lurzoru aproposa nola landu daitekeen azaldu nahi izan dugu balizko prozesu honetan. Herri guztiak desberdinak direnez, tokian tokiko ezaugarri horietara egokitutako prozesuak eraiki beharko ditu bakoitzak. ***Bertakoek, bertakoentzat eta bertako baliabideekin egin beharreko prozesuak baitira hauek.***

Lurzoru honetatik nerabeekin batera prozesuak abiatzeko aukera ederra dagoela uste dugu. Filosofia, ekimena eta baliabideak etorkizuneko egitasmo zehatzetan islatuko direla ere irudikatu dezakegu. Nerabeen nahi eta beharrak kontuan izanik, parte-hartze olatuak sortuko dira; nerabeek ekimenak, zerbitzuak, jaialdiak edo auskalo zer sortuko duten; helduak bide-lagun ditzutela, zerbaiten parte sentituko dira; eta haien errealitateetik abiatuz herria birpentsatuko dute.

“Herri bakoitza desberdina denez, tokian tokiko ezugarri horietara egokitutako prozesuak eraiki beharko ditu bakoitzak.”

“zerbaiten parte sentituko dira eta beraien errealitateetik abiatuz herriabirpentsatuko dute.”

Olatuaren ideia honetan jarri nahi genuke fokua




Behin lurzorua eta baliabideak adostuta eta bermatuta ditugula, nerabeekin batera ametsak pizteko garaia izango da; beraien proposamenetatik abiatuz, edo guk heldu moduan nerabeek azaldu duten behar bati erantzungo dion ametsa partekatuz.

Amets hori gauzatzeko ibilbidea izan daiteke parte-hartze prozesu zehatz baten adibidea. Talde motorra sortuko dugu, eta nerabe-talde interesatua talde motor horren parte izango da. **Hel-duok zentroa beraiekin partekatuko**

dugu, eta elkarrekin egingo dugu bidea. Bide horretan batzordeak sor daitezke, inplikazio maila ezberdinak ahalbidetuko dituzten lantalde autonomoak; eta, olatuaren tamainaren arabera, parte-hartzaile gehiago batu ahal izango dira ibilbidera.

Olatuaren gorakada honetan estimulu positiboan eta errefortzuen beharra nabarmendu nahi dugu; motibazioa elikatzeko eta goranzko joera ahalbidetzeko beharrezkoa izango da; udalak emandako baimen bat, erreferente



baten bisita bat edo piztutako ametse-
ra gerturatuko gaituzten urratsak irudi-
katzea bezalako errefortzuak izan dai-
tezke; nolana ere, motibazioa zaindu
eta elikatu behar dela deritzogu.

Olatuaren goranzko joera honetan, eki-
nez ikasiko dugu denon artean eta ola-
tuaren gailurra emaitza izango da. **Gau-
zatutako proiektua ikusiko dugu, edo
egindako saiakera ederra ospatuko
dugu, eta egindako bideari balioa
emango diogu.** Olatuaren intentsitatea
jaisten denean, egindakoa batu, jaso
eta ebaluatzeko garaia izango da. Ola-
tuaren ondoren barealdia etorriko da,
eta indarrak hartzeko garaia izango da.

Parte-hartzearen itsasoa bizi-bizirik
dago, ekimenak, baliabideak eta filoso-
fia bermatuta baititugu. Xirimiri herrian
ikusitako dugun moduan, hainbat olatu sor-
tzeke aukera izango dugu, nerabe talde

ezberdinekin, adin tarte ezberdinekin
edo denok batera. **Parte-hartzearen it-
sasoa olatu handiagoak, txikiagoak
izango dira, emaitza ikusgarriak eta
saiakera antzu bezain baliagarriak.**
Herria eraikitzeko orduan nerabeekin
batera olatuak surfeatzen ikasi beharko
dugu helduok, eta nerabeek beraien bi-
dea egingo dute.

Haiek entzuteko eta kontuan hartzeko
zintzotasuna izan behar dugu, helduok
gure boterea askatzeko konpromisoa
izan behar dugu, gure beldurrak eta
mugak argitasunez azaltzeko ausardia,
malgutasunerako prestutasuna; horre-
tan saiatzea izango da gakoa. Egiteko
modu horiek partekatzen dituzten kide
gehiagorekin saretu gaitzake gainera.
Eta prest egon behar dugu hanka sar-
tzeke, eta hanka ateratzen trebatzeko;
izan ere, bidean erronkak izango ditu-
gun arren, merezi izango du.



Ziur gaude balizko prozesu hau irakur-
terakoan zalantza bat baino gehiago
sortuko zaizuela. Guri ere bai. Hona he-
men horietako batzuk:

- Nola egin horrelako zerbait 20.000 biztanleko herri batean? Auzoz auzo? Eskolaz eskola?
- Erakundeetatik kanpo lan egi-
ten dugun talde bat bagara, eta
gure kabuz martxan jarri nahi ba-
dugu, baliabide gutxirekin, non-
dik hasi? Nola azaldu muga eta
aukera hauek hasieratik? Nola
mantendu prozesuari eusteko
konpromisoa taldean?
- Nola iritsi normalean iristen ez
garen nerabeengana?
- Nola ekarri erdigunera, norma-
lean bazterrean egon ohi diren
nerabeen ahotsak?

Guk ez daukagu denentzako erantzun-
nik. Baina han eta hemen loratzen ari
diren egitasmoetatik asko ikas dezake-
gulakoan gaude. Horregatik, Euskal
Herriko zenbait txokotan gauzatzen
ari zareten egitasmo zoragarriak eza-
gutarazten eta horiei balioa ematen
jarraituko dugu Oinheritik. Harri-
bitxi horietako bat ezagutzeko aukera
izan genuen, pasa den udazkenean
Aiaraldeako Ekintzen Faktorian buru-
tu genituen jardunaldietan: Darkum
elkartea. Liburuxka honi amaiera ema-
teko, Darkum elkarteko kide den Sara
Mchichouri eginiko elkarrizketa bat ge-
hitu dugu. Bertan, nerabe migratuekin
parte-hartzea lantzeko orduan kontuan
izan beharreko gakoak identifikatzen
saiatu gara, migrazio prozesu bat bizi
izan duen nerabe bati ahotsa emanaz.

***“hankak prest izan sartu eta
ateratzen trebatzeko, bideak
erronkak izango baditu ere,
mereziko du eta.”***

***“han eta hemen loratzen ari
diren egitasmoetatik asko ikas
dezakegulakoan gaude.”***

4. NERABE MIGRATUEKIN PARTE-HARTZEA LANTZEN



Sara Mchichou **Darkum elkarteko kideari** **elkarrizketa**

Darkum migrazio prozesu bat jasan duten nerabeeek sorturiko elkarte bat da. Nerabe migratu horiek euren beharrak elkarrekin landu ahal izateko gune seguru bat. Nerabe migratuak beraiek dira protagonista eta haiek esaten dute zer behar dituzten jendarte honetako parte izateko.

Zein da Darkun elkartearen helburu nagusia?

Euskal nerabeen profil berria normalizatu nahi dugu, euskara izanik inklusiorako tresna nagusia. Inklusioak ordea, bi noranzkokoan izan behar duela aldarrikatzen dugu. Ez garela gu bakarrik

txertatu behar zuenean. Hemen jaiotakoek ere inklusio honetan busti behar dutela uste dugu; euren begirada aldatuz eta desberdina den horri beldurra galduz. Elkarrekin berria, ezberdina, denontzat hobea, asegarriagoa izango den jendarte eredu berri bat eraikitzeke. Bi noranzkoetan landu beharreko inklusioa aldarrikatzen dugu, beraz.

Zeintzuk izan daitezke horretarako gakoak?

Horretarako, beraientzat gakoa da hementxo eta hango nerabeek elkarbanatzen ditugun beharrak identifikatzea. Oinarrizko beharretara jaistean denok berdinak garelako. Izan ditzakegun interes komunak identifikatu eta, sormenaren bidez, jendartearen parte izateko modu berriak eraikitzea. Eta lan horretan parte-hartzea gakoa izango dela uste dute. Parte hartzeko aukera berdintasuna izatea, parte hartzen ikasteko aukera berak izatea. Denok daukagu zer esan, zer eman eta zer jaso. Ez da hainbeste nerabe migratuak lehenetik sortuta dauden parte-hartze gune, egitura edo prozesuetan integratzea, baizik eta hasieratik denon ahotsa kontuan izanik, denona izango den zerbait sortzea. Elkargune bat, denok balio bera izango dugun gune seguru bat.

Nerabe migratuen ikuspuntuak nerabezeroaren aniztasuna ikusten laguntzen digu?

Onartu beharra dago ez dela nerabezero bakar bat existitzen. Nerabe izateko mila modu ezberdin daudela. Nerabe bakoitza bakarra eta errepika ezina da, eta bakoitza ezagutu behar dugu; bere bizi-ibilbidea, interesak, beldurrrak, ametsak... Migrazio prozesu bat jasan duten nerabeek daukaten motxila bereziki landu behar da, eurekin batera lan egin nahi baldin badugu. Ez delako gauza bera hemen jaiotako nerabe bat edo 12 urterekin pateran mediterraneoan zeharkatu behar izan duena. Nerabe migratuek izan ditzaketen emozioak, bizipenak, haurtzaroan bizi izandakoa, familiarengandik urrun egon beharra... Hori guztia ezagutu behar dugu eurekin zerbait eraikitzen hasi aurretik. Hori guztiari leku bat egiten ez badiogu, oso zaila izango delako nerabe horien jarrera eta izateko eta ekiteko moduak ulertzea.

Nerabeekin lan egiten duten hezitzaileak erreferente bilakatzen dira maiz... garrantzitsua izango litzateke hezitzaile taldean pertsona migratuak egotea?

Bai, ezinbestean. Nerabe migratuek migrazio prozesuren bat bizi izan duten hezitzaile erreferenteak behar beharrezkoak dituzte; antzeko bizipenak bizi dituztenez, errazago konektatuko

dutelako; baina, era brean, ohartzeko beraiek ere irits daitezkeela etorkizun duin bat izatera. Horrela, euskal identitate berri bat eraikitzen joan gaitzke, hangoen eta hemengoen artean dagoen marra hori geroz eta difuminatuagoa bihurtzen joateko. Modu hone-tan deseraiki ahal izango dugu aurrez ikasitakoa, eta identitate berri bat sortu. Eta horretarako, erreferente migratuak edota arrazializatuak behar-behar beharrezkoak ditugu.

Oinherritik inklusiotik bizikidetasunera jauzi kualitatibo bat ematea proposatzen dugu. Nerabeen parte-hartzea inklusioaren prismatik eraiki beharrean, aniztasunaren bizikidetzarako modu berriak birpentsatzea proposatzen dugu. Bizikidetasunaren bidez, Denise Najmanovich pentsalari argentinarrek planteatzen duen moduan, inklusioa vs. esklusioa binomioa gainditu eta aniztasunaren bizikidetzari beste begi batzuekin begiratzea proposatu nahi dugu. Eta Darkum elkartean hori praktikatik egitea proposatzen duzue, ezta?

Bai, guretzat praktikatik eragitea da gakoa. Gauzak eginez aldatzea. Kolektibo bezala ditugun interes komunak identifikatu eta hortik eragitea. Darkumen praktika eraikitzailea hiru arloren inguruan egituratzen dugu: artea, biziklapena eta ingurumena. Horiek sormenaren eta parte-hartzearen bidez

elkarrekin lantzen ditugu egunero. Denen ahotsek balio berbera duten elkar-guneak sortzeko aukera ematen digu horrela jarduteak; hasieratik denon artean zerbait eraikitzeko. Denok dauka-gulako zerbait emateko.

Pentsatu, sentitu eta ekiteko beste bizi ikuspegi bat garatzea proposatzen duzue, beraz...

Bai, pertsona migratuak lehendik, haiek gabe, erabaki, eraiki eta diseinatu diren prozesu eta guneetan txertatzen saiatu beharrean, elkarrekin zerotik zerbait berria, desberdina eraikitzen saiatzera gonbidatzen dugu Darkumetik.

Zerbait esperientziak adierazten dituzten moduan, egungo jendartean barnebildu izan diren kasu gehienak baztertuak izan dira, marjinatu moduan integratuak edota barrurantz segregatuak. Jarraian agertzen den grafikoak erakusten duen moduan, inklusioa jendarte justuago bat eraikitzeko orduan aurrerapauso nabarmena izan bada ere, inolaz ere ez du jendartea sailkatzeko eredua gainditzen, arketipoak (gizona, emakumea, migratua...) kaxaz aldatu "besterik" ez baititu egiten.

Nerabe migratuak jendartean migratu edo arrazializatu moduan soilik izan daitezke txertatuak. Ez dago izaki errepikaezin singularrik, klase edota este-reotipoak baizik. Ez dago taldekide izateko askotariko modurik; edo barruan edo kanpoan zaude, eta pertsona klase

bakoitzaren barruan homogeneizazioa gailentzen da. Ez dago lekurik berezitasunentzat, aniztasunarentzat eta eraldaketarentzat. Iruditegi honetan ez dira izateko modu askotarikoak islatzen, ez da bizitza kabitzen.

Pertsonak kategoriatu bakar baten barruan harrapatuta geratzeko arriskua dakar eredu horrek, ezta? Nerabe migratuak migratuak izateaz aparte gauza askoz gehiago ere izan daitezke, ezta?

Noski, eta nerabe migratuen artean ere aniztasuna ikaragarria da. Migrazio prozesu bat bizi izanak betirako markatu gaitu eta gu garena markatu du, baina horretaz aparte, mila gauza ezberdin izan gaitetzke. Eta elkarrekin jardute honekin pentsatu, sentitu eta egiteko bestelako harreman eta eraikuntza sozialak eraikitzeo aukerak emango dituzten belaunaldiarteko espazioak sustatzea proposatzen dugu. Izateko askotariko modu guztiak, maila berean baina milaka forma ezberdinetan, parte izan ahalko diren espazioak; eraikuntza sozialak.

Oinherritik uste dugu, hori guztia gertatzen dela, gure jendartea norma den arketipo batean antolatu eta eraikitzen delako. Jarrera guztien atzean norma moduan definitua izan den arketipo horren imajinarioa ezkututzen da; ekintzak epaitzeko, sentimendu bakoitza aztertzeo eta

arrazoibide bakoitza marko her-tsi bilakatzeko. Garen tasun guzti horiek, norma moduan definitu den patroiarekin konparatzeko, finean. Norma den ideal honen kategoriarekin amaitu ezean, ezinezkoa izango da desberdintasun sozialekin amaitzea, normaren baitan normala dena existitzen den bitartean, normala ez dena ere existituko delako. Ondorioz, normalizazioaren ikurraren pean garatuko ez den inklusio konfigurazio berri bat eraikitzea proposatzen dugu: bizikidetasunarena.



KOADERNO BILDUMA:

1



Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen

2



Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik

3



Nola egin udaleku parte-hartzailea

4



Nola egin ludoteka parte-hartzailea

5



Parkeak bizitzeko modu berriak

6



Jolasa: Eskubidea eta errealitatea

7



Arte hezkuntza eta prozesu kolaboratiboak

8



Herri antolamendua herri hezitzailearen ikuspegitik